

IRABAZI ITURRIAK

Negozioa mantetzeko, diru-sarrerak izan beharko ditugu eta enpresak ekonomikoki errentagarria izan beharko da. Hauek izango dira gure diru sarrera nagusiak:

Aplikazioaren “premium modua” ordaintzen ez dutenek iragarkiak ikusi beharko dituzte, eta **publizitate** hori dela eta irabazi ekonomikoak izango ditugu. Ikasleek apunteak deskargatuko dituzten momentuan iragarkiak txertatuko dizkiegularik. Zenbat eta jende gehiagok ikusi iragarkiak, orduan eta diru gehiago irabaziko dugu. Apunteak editatzeko eta aldatzeko aukera izango dute. Hau da, besteen apunteak gordetzean, haien kabuz

“**Premium modua**”, erabiltzaileek aplikazioaren bertsio hobeagoa erabili nahi badute, diru kantitate jakin bat ordaindu beharko dute hilabetearen eta hezkuntza mailaren arabera. Esate baterako, batxilergoa ikasten duten ikasleentzat, aplikazioa garestiagoa izango da azaroan, otsailean, maiatzan eta ekainean, hilabete horietan apunteekiko eskaera askoz handiagoa da, azterketetan daude eta. Bestalde, unibertsitatean dauden horiek, abenduan, urtarrilean eta maiatzean gehiago ordaindu beharko dute. Honen arabera aplikazioa hain beharrezkoa ez denean, azterketen hurbil ez daudelako, premium moduan merkeagoa izango da.

Hori gutxi balitz, "premium" erabiltzaileek txanpon kopuru bikoitza irabaziko dute saioa egunero hasterakoan.



Esku bat txanpon batzuk hartzen, izango ditugun irabaziak adierazten dituen.

Argazkia-hemendik:https://www.freepik.es/vector-premium/dinero-crecimiento-ganancias_4643289.htm